



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

VI. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2025eko maiatzaren 28, 29 eta 30a
Bilbo, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 4.0

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Lurraren Kultura Berria: Arratiako
landatar berrien narratibak**

Nerea Zuluaga Mauri

95-102 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.vi.02.12>

ANTOLATZAILEA



BABESLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



LAGUNTZAILEAK



Lurraren Kultura Berria: Arratiako landatar berrien narratibak

Nerea Zuluaga Mauri

Ekopol-Iraunkortasunerako Bideak ikerketa taldea (UPV/EHU)

*Ikerketa Arloak eta Ereduak Gizarte Zientzietan Doktoretza Programa, Soziologia eta
Gizarte langintza saila (UPV/EHU)*

nerea.zuluaga@ehu.eus

Laburpena

Krisi ekosozialen testuinguruan premiazkoa da bizimodu inperialak berrikustea eta muga biofisikoen barruan kokatuko diren bestelako bizimodu alternatiboak irudikatzen hastea. Ikerketa honetan hiriguneetatik landa eremura bizimodu alternatiboan bila joandakoen narratibak aztertuta dira, bizimodu aldaketa horietan azaleratzen diren balio eta praktikak Lurraren Kultura Berriaren baitan kokatu daitezkeen ikusteko. Arratiako 22 landatar berriren esperientzietatik abiatuta, ondorioztatu dezakegu Lurraren Kultura Berrirako trantsizioa hasita dagoen prozesua dela, modu isilean edo apalean bada ere.

Hitz gakoak: Lurraren kultura berria, landatar berriak, narratibak, krisi ekosoziala, Arratia.

Abstract

In the context of ecosocial crises, it is urgent to review imperial ways of life and to begin to imagine alternative ways of life within biophysical boundaries. This study examines the narratives of people who have gone from urban to rural areas in search of alternative lifestyles to see if the values and practices that emerge in these changes of life can be framed within the New Earth Culture. From the experience of 22 new rural Arratians, we can conclude that the transition to the New Earth Culture is a process begun, albeit in a silent or modest manner.

Keywords: New Earth Culture, neorrurals, narratives, ecosocial crisis, Arratia.

1. Sarrera eta motibazioa

Krisi ekosozialak aldaketa sakonak eta globalak dakartza dimentsio materialean, hainbeste, non bizimoduz modu planifikatuan aldatzeko beharra azaleratu den, ez bakarrik etikoa delako, egin ezean krisi ekosozialek areagotzen jarraituko dutelako baizik, gizakion eta beste hainbat bizidunen bizitza bera arriskuan jarritz (Riechman, 2020; Herrero, et al. 2018).

Testuinguru horretan, esanahi-iturri eta narratiba alternatiboak sortzeko beharra ere badago, eremu ezezagunetatik gidatzeko mapa batzuk bezala (Geertz, 1991). Mapa horien oinarrian edo abiapuntuan hainbat balio eta ideia identifikatu ditzakegu dagoeneko, hala nola desazkundera, biodibertsitatea, komunitatea, energia berriztagarriak, ekonomia zirkularra eta zaintza lanak (Moran, 2023). Mapa horri Lurraren Kultura Berria deituko badiogu ere, berritik gauza gutxi izango ditu, izan ere, iraunkortasunaren kulturaren (Herrero, et al, 2018) hazia ereiten ari da dagoeneko munduko hainbat txokotan. Hazi horiek hedatzeko modua egongo ote den ez dakigu oraindik, baina, espezie gisa dugun erantzukizunari helduta bizimodu inperialak alboratu eta Lurrari loturiko bizimoduak berreskuratzeko aukera badago oraindik ere. Hau da, ez da nahikoa modu indibidualean bizimodu aldaketa bat egitearekin, aldaketa kultural kolektiboez ari gara, egiturazkoez, beharrezkoak direlako gaur egungo zibilizazio krisiari aurre egiteko. Aldi berean, trantsizio ekosozialen bidean giza subjektibitatea lehentasunezko aukia da, jokabideak eta jarrerak aldatu behar baitira sinpletasunaren eta nahikotasunaren norabidean, besteak beste (Azkarraga, 2021).

Zentzu horretan, ikerketa honek bizimodu alternatiboak irudikatzen lagundu nahi du, eta horretarako, Arratiako 22 neorrural edo landatar berriren esperientzietan oinarritutako

narratiba osatu da. Maiz, neorrurala klase-ertaineko eta adin-ertaineko pribilegiadun gisa irudikatzen da, erabaki indibidualista baten ondorioz, landa eremuan hobeto bizi dena. Baina, kasu honetan, bestelako profil batengana hurbildu gara, eta euskal landa eremuko neorruralitate erradikalak (Halfacree, 2007) aztertu ditugu. Kasu honetan, protagonista kapital kultural handikoa den arren, ez du kapital sozial ezta ekonomikorik landa eremuan. Arratian, Euskal Herriko beste hainbat landa eremutan bezala, mota horretako landatar berri asko dago eredu alternatibo edota erradikalen bidez lurraldea eraldatzen. Ikerketa Arratian abiatu da, bertako landatar berrien komunitatearen egitasmo ezberdinen berri izan duelako ikertzaileak azken urteetan. Baina, ikerketa Euskal Herriko lurralde desberdinetara (Pirineoak, Nafarroa hegoaldera...) zabaltzeko aukera ere aurreikusten da.

Landa eremuan errotu nahi duten pertsonen bizi esperientziak bereziki interesgarriak dira bizimodu alternatiboak irudikatzeko; alde batetik, bizimodu aldaketa horien bidez hobeto bizitzea lortzen dutelako, eta horrela, bizimodu alternatiboak erakargarriak ere izan daitezkeela erakusten dutelako. Baina, batez ere, bizimodu aldaketa hauetan kultura berria eguneroko bizitzan praktikara eramaten delako, eta horrela, sortzen diren zailtasunak eta oztopoak antzeman daitezkeelako.

Laburbilduz, aztertu da egoteko eta izateko modu horiek zein zentzutan erakusten duten badaudela moduak bizitzaren eta landa eremuaren iraunkortasuna bermatu dezaketen baldintzak sortzeko, eta gainera, pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Neorruralitateak hiritik landagunera egiten den migrazio mota jakin bati egiten dio erreferentzia. Hiria baino eremu edo leku egokiago bat bilatzeko helburuarekin egiten da, eta oinarrian bizitza-proiektu alternatiboaren ideia du (Nogué i Font, 2012), betiere, landa-eremuari eta naturari, zein komunitateren balioei lotutakoa. Espainian bi olatu egon ziren; lehenengoa, 1976tik 1979ra izan zen, eta momentu horretako eferbesentzia libertarioa zela eta ideologikoki anarkistak ziren esperientzia komunalak nagusitu ziren. Bigarren olatua, 1979tik aurrera izan zen (Nogué, 2016) mugimendu ekologistaren indartzearekin batera gizartearen kontzientzia ekologista handitzen zihoan, eta horrez gain, bizi-proiektu indibidualak edota familiarak agertzen joan ziren, komunalez gain. Dena den, neorruralak, lehenbizi, haien bizimodua edo bizi-estiloa aldatu nahian mugitzen badira ere, kasu askotan, gizartearen eraldaketan laguntzeko helburua ere badute. Aztertutako esperientzietan, adibidez, indibidualtasuna gaitzetsi eta aniztasuna eta komunitatea balioan jarriko dituztela ikusiko dugu. Gaur egun, bigarren olatuko neorruralismoa nagusitzen da, non lurraldetasuna esperimentatzeko modu berri bat bilatzen den (Nogue, 2016; Mercier eta Simona, 1983), lurraldetasun berri bat, bizi-kalitatea, lana edo komunitatea bezalako funtsezko kategoriak sakonean berrikustea eta praktika sozioespazial berriak eskatzen dituen (Halfacree, 2007). Hala, neorruralak autonomiaz gain, bizimodu jasangarriagoak bilatzen hasten dira, eta gainera, adierazgarriagoak, sinpleagoak, garbiagoak, eta benetan garrantzizkora itzultzea ahalbidetzen dieteneak (Benson eta O'Reilly, 2009).

Bertrand Hervieuk eta Danièle Légerrek (1979) adierazi zuten eguneroko bizitzako krisi, kutsadura eta burokraziaren aurrean utopiako etorkinek naturara jotzen zutela, haien irudimenak handitutako landa-mundura, harmoniaren, elkartasunaren eta komunitatearen sinboloa. Garai bateko landa-munduaren balio bereizgarriak, desagertzeko bidean zeudela uste zirenak, berrasmatu egiten zituen hiriko jendeak, eta harrez gero ez ziren landara joaten lan faltagatik edo egoera ekonomikoak bultzatuta, hirian aurkitzen ez zuten zerbaiten bila baizik (Blas eta Elias, 1991). Orduan, neorrural mota nagusi bi desberdindu ziren: pragmatikoak eta utopikoak. Hau da, lekuz aldatzen zirenak alde batetik, motibazio ekonomikoak bultzatuta eta bestetik, motibazio ideologikoak bultzatuta. Gaur egun, ordea, neorruralitateaz hitz egiterakoan, batez ere, kontuan hartzen dira azken horiek; hau da, gizarte kapitalistek proposatzen duten bizimoduari alternatiba bilatzeko hiritik landa-ingurunera doazen gizabanakoak dira neorruralak, izan proiektu familiarak, komunalak, erradikalak edo ez hain erradikalak. Horrela, neorruralak dira hiria utzi eta landara bizitza

alternatiboko proiektu batekin doazen pertsona guztiak, askotarikoak bezain anitzak izan daitezkeenak (Nogué, 1998).

Euskal Herriko kasuan, landara buelta, gainera, identitate euskaldunaren eta sustraien bilaketa gisa ere ulertu beharra dago. Josetxu Martinezek Aramaioko bailararen azterketa antropologikoan ikusi zuen, adibidez, iraganeko balioen eta erritmoen bidez, kulturaren nolabaiteko berreskurapena dagoela modernizazioak ekarritako gizarte portaera, balio eta eskemei aurre egiteko. Lehen, gizarte-loturako errituak (bazkariak, jaiak, etab.) krisi naturalei edo heriotzari aurre egiteko egiten baziren, gaur egun, naturalari eta ekologikoari balioa emateko errituak dira, eta, aldi berean, komunitatearen heriotza soziala eta kulturala saihesteko helburua dute (Martinez, 2002). Landa-ingurunean bizi diren talde berriak ez dira hiri-logiken bidez espazioa asimilatzeke portaerak lantzen ari; aitzitik, erritu-denboran oinarritutako holistizazio-prozesu bat bultzatzen ari dira (Martinez, 2002).

Hau da, kontzientzia ekologikoa hazten joan den heinean, identitate euskalduna identitate ekologikoarekin uztartu da, eta landara buelta euskalduntasunarekin lotzeaz gain, bizimodu iraunkorra eta seguruagoak bilatzeko estrategia gisa ere agertzen da.

Lurralde-identitatea garatzeko eta indartzeko oinarritzko elementua da errotzea. Bertakotasun sentimendu indartsuak, era berean, bizimodu eta kultura alternatiboak sortzeko aukerak areagotzen ditu (Norberg-Schulz, 1979). Horregatik, ikerketa honetan, errotze-utopiak (Rivera, 2007) aztertu dira. Errotze-utopiek bi elementu nagusi dituzte, alde batetik, bizikidetzakomunitarioa eta bestetik, naturarekiko harremanak eraldatzea. Baina, beste hainbat baliorekin ere bat egiten dute, hala nola bidezko gizartea, antolaketa horizontala, ekologismoa, agroekologia edo lurraldearen defentsa (Escribano, 2020). Esan daiteke kasu hauetan helburuak ez direla instrumentalak, existentzialistak baizik. Izan ere, haien ideologiarekin bat datozen bizi praktiken bidez, zentzu berri bat eman nahi zaio norberaren bizitzari.

Horrez gain, hiru rol mota desberdindu ditugu: ekoizleak, narratzaileak eta kontsumitzaileak (Orria eta Luise, 2017). Ekoizleen artean kokatu ditzakegu nekazari berriak. EAEn, adibidez, agroekologia oinarri duten laborantzak dituzte, eta batez ere, autokontsumorako dira, baina, askotan, soberakinak salmenta zuzenera bideratzen dituzte. Normalean, hirietatik hurbil bizi dira eta hektarea bat baino gutxiagoko lurra dute. Hiritik hain hurbil bizi direnez, batzuek beste lanbide bat ere badute, diru-sarrerak ziurtatzeko balio diena (Calvario, 2017). Kontsumitzaileak lirateke tokiko produktu ekologikoen kontsumitzaileak edo kultura kritikoaren kontsumitzaileak ere. Eta narratzaileei dagokionez, bizitza kultural eta politikoa aktiboki parte hartzen dute, eta landa eremuaren berregituraketa sinbolikoan eragiten dute, adibidez, garapenaren balio ezberdinak txertatuz. Ikerketa honetan, aztertu da izan ere, subjektu horiek nola eragiten duten landa espazioan, baina, baita espazioak nola eragiten duen subjektibitate berrien sorreran ere.

Hortaz, ikerketak bi helburu nagusi ditu: Lehenik, **(1) Arratian errotzea bilatzen duten landatar berriek Lurraren Kulturaren inguruan dituzten narratibak** ezagutu nahi dira, eguneroko bizitzan produzitzen dituzten balio eta praktika alternatiboak ematen dieten zentzua aztertuz, batez ere, komunitateari, lurraldeari, desazkundeari, nahikotasunari eta sinpletasunari dagokionez. Gainera, generoa, jatorria eta lanbidea kontuan hartuta, narratibetan desberdintasunak antzeman dira. Eta bigarrenik, **(2) Arratiako landatar berriek landa eremuaren eraldaketan nolako aukerak eta oztopoak dituzten antzeman** nahi da. Haien helburua espazioa berregitea da, eta bizileku bat sortzea non egitura sinbolikoak eta eguneroko bizitzako praktikek bat egiten duten. Baina, maiz, gatazkak sortzen dira ohiko bizilagunekin, edota egiturazko oztopoak aurkitzen dituzte.

Horretarako, 22 elkarrizketa sakon edo bizitza-istorio egin dira saturazioaren irizpideari jarraiki, hau da, batetik bestera edukia errepikatzen hasi zenean elkarrizketak amaitu ziren. Elkarrizketatuak aldagai ezberdinak kontuan hartuz aukeratu dira, horrela, 5 ekoizleak eta 17 ez-ekoizleak dira; 3 atzerritarrak, 14 euskaldunak, 2 espainiakoak; 13 emakumeak eta 9 gizonak. Era berean, hamarkada ezberdinetan heldutakoak dira, izan ere, 3 elkarrizketatu

1990. hamarkadan heldutakoak dira; 7, 2000. hamarkadan; 6, 2010. hamarkadan eta beste 6, 2020. urtean. Adinari dagokionez, 30 eta 50 urte artekoak dira gehienak, 90. hamarkadan etorritakoak, berriz, zaharragoak dira dagoeneko.

Elkarriketatuengana elur-bolaren bidez heldu gara, alegia, elkarriketatuek eurek ematen zituzten kontaktu berriak, Arratiako landatar berrien komunitatea ezagutzeko modurik zuzenena baitzen.

3. Ikerketaren muina

Arratian errotu nahi duten 22 landatar berriren bizitza istorioen bidez, ondo bizitzeari zer nolako esanahia ematen dioten ikusi dugu. Hasteko, bizimodu aldaketarako hiru motibazio edo arrazoi ideologiko nagusi aurkitzen ditugu: Lurrari lotzea, komunitatearen parte izatea eta euskaraz bizitzea.

Lurrari lotzea oso kontzeptu zabala eta sakona da aldi berean. Pertsonaren arabera esanahi ezberdina izango du; ekoizleentzat, adibidez, nekazaritza jardueretan aritzea ezinbestekoa da Lurrarekiko lotura erreala lortzeko, zehazki, agroekologia litzateke baserritar berri hauen ideologia nagusia. Bestalde, badaude etxeko ortua dutenak, baina, ez direnak lehenengo sektoretik bizi, eta horientzat, Lurrari lotzea lotuta dago, batez ere, komunitatearekin harremanak sendotzearekin. Horrez gain, badago era berean, Lurrari lotzea espiritualitatearekin lotzen duenik ere. Gainera, Lurrarekin lotura euskalduntasunarekin eta jatorrizko euskal kulturarekin lotzen da maiz.

“Hirian ezin dut espiritualitate euskalduna bilatu, konekxio hori lortzeko behar dut Natura. Niri berdin zitzaidan non, baina, naturari lotuta izan behar zen” (Irati, 35, Arantzazu)

Modu batean edo bestean, azkenean, Naturarekin harremanean, lurraldeari loturiko identitate berriak sortzen dira. Eta ikusiko dugun bezala, identitate horiek euskaldunak izateaz gain, ekologikoak dira. Izan ere, landatar berriek asko azpimarratzen dute gutxiago kontsumitzeak haien bizi kalitatean duen inpaktu positiboa.

“Orain gutxiago kontsumitzen dut, nik uste dut hemen gauza gutxiagorekin hobeto gaudela, hiri batean zaude bultzatuta kontsumora, ez bada erosketak egitera, pote bat hartzera...beti dau zentroan kontsumoa. Eta zatozenez leku batera ez daukazuna hori, nik uste zure beharrak be aldatzen direla. Nik orain ez dut behar askorik bizitzeko...” (Ainhoa, 37, ekoizlea, Igorre)

Materialki gutxiago kontsumitzeak eta bizimodu sinpleagoak eramateak ez dakar zuzenean zoriontasun eza edo bizi kalitatea gutxiagotzea. Are gehiago, kontsumoa gutxitzeak bizi kalitatean eragin positiboa izaten du maiz (Huttel, et. al, 2020). Imajinario kapitalista dominazio mugagabeak markatzen du, eta krisi ekosozialaren testuinguruan, gure gorpuztasunaren eta inguratzen gaituen munduaren izaera finituari aurre egiteko beharra agertzen da. Funtsean, gehiegikeriaren gizartean bizi gara (Herrero, Cembranos eta Pascual, 2011) eta landatar berriek beharrezkoa den nahikotasunaren kultura bat bultzatzen dute.

Bestalde, lanari ere, esanahi alternatiboa ematen diote. Neorruralitatean, lanak ez du soilik balio ekonomikoa, alta, balio sozial eta psikosoziala ematen zaizkio, lanak norberaren sormena garatzeko balio baitu (Nogué, 1998). Neorruralitatean, maiz, autonomiaren eta autoabastezimenduaren balioetan oinarrituriko lana proposatzen da (Mercier y Simona, 1983, Escribano, 2020), baina, Arratiako kasuan, merkatuaren logika eta egitura zurrunik direla eta oso zaila da praktika alternatiboak sortzea.

Kasu honetan, lanari esanahi alternatiboa ematen zaio baserritar berriek ez dutelako helburu produktibistarik, kontrara, erreproduktzioa eta etxekoak zaintzera bideratutako jarduera bezala hartzen dute, eta hazkunde ekonomikoaren logikarekin hausten dute horrela. Eta, batez ere, lana emantzipazio pertsonalerako bide garrantzitsu gisa agertzen da.

Baserriaren konponketa lanak edota inguruko zelaien eta landaketen zaintza lanak, esaterako, balioan jartzen dira autonomia pertsonalerako bide gisa.

“Guk baserria ez genuen ikusten txaleta bezala, ikusten genuen lantegi bezala, lehen zena. Eta guk ez dugu gure etekin ekonomikoa bertatik lortzen, baina, bai dela sorkuntzarako espazioa, oso garrantzitsua da hori, ze ahal duzu egurrarekin gauzak egin...” (Igor, 31, Igorre)

“Niri gustatzen zait nik egitea, reto personala da, eta ikusten dut posible dela. Nik uste dut dena ikasten dela eta nahi nuen demostratu nire buruari egin daitekeela. (Marisa, 60, Dima)

Azkenik, azpimarratu nahi da lanbidez aldatzean, baserritar berriek pribilegioak galtzen dituztela sarritan (Somer eta Welzer, 2014). Aldiz, Arratiako baserritar berriek galera moduan bizi beharrean, modu positiboan bizi dute, batez ere, arintasunaren eta sinpletasunaren printzipioekin koherentzia bizitzea ahalbidetzen baitie. Borondatezko Sinpletasunaren bidez, estatus sozialak ematen zien pribilegioei uko egiten diete, eta haien erosoagoa da “inpostore-komplexua” gainetik kentzea, horrela, haien “benetako” izaera edo identitatearekin bat egiten baitute.

“Esto es lo único que he encontrado en la vida que me da tranquilidad. Antes como enfermera o como cooperante sentía algún tipo de incomodidad. Ahora no me siento por encima de nadie ni haciéndole mal a nadie. Estoy aquí cómoda. Aquí estoy, eso soy yo” (Claudia, 45, ekoizlea, Zeberio)¹

Neorruralak klase ertainekoak direla ondorioztatu zen egindako hainbat ikerketetan, batez ere, 90. hamarkadan. Aldiz, ikertutako kasuetan, ikusi dugu kapital kultural handiko, baina, kapital ekonomiko ertain-baxukoak direla. Eta batez ere, lehenengo sektorerako salto egiten dutenek diru-sarrerak baxuak izateaz gain, sozialki estatus handiagoa duten lanbideetatik egiten dute salto.

Bestalde, elkarriketen bidez ere, Arratiako landatar berriek landa eremuaren eraldaketan nolako aukerak eta oztopoak dituzten ikusi da. Hainbat oztopo aurkitzen dituzte, nekazari berriek, adibidez, lehengo sektorean lurra eskuratzeko eta lan baldintzak duinak izateko.

Emakume nekazari berriek, gainera, baserrian zaintza lanak eta jarduera produktiboak uztartu egiten direnez, lanaldi luzeak izaten dituzte eta buruko karga ugari, autozaintzarako denbora aurkitzeko zailagoa dutelarik. Gaur egun, landa-inguruko emakumeek haien egunaren denboraren % 30 baino gehiago (ia 8 ordu) lanera eskaintzen dute (etxekoa, zaintzakoa edo ordaindutakoa) gainera, egunero 2 orduan gaingitzen dute gizonek eskainitako denbora (Eusko Jaurlaritza, 2020).

Jatorri euskalduna ez dutenen artean, halaber, errotzeko zailtasuna handiagotu egiten da. Euskal Herritik kanpo jaiotakoen artean, euskal kulturarekiko lotura ere ikus dezakegu, euskeraz hitz egiten ikasten dutenean, edo bertako kulturaren defentsan dihardutenean. Baina, familia eta etxea urrun izateak haien erdibitze sentsazioa areagotzen du, eta azkenean, errotzeko eta bertan geratzeko zailagoa dute.

Zailtasun edo oztopo nagusia, aldiz, ekonomikoa da. Baserria ordaintzeko hipoteka ordaindu beharrak, soldatapeko lan bat izatera behartzen ditu, eta horrek, bizitza bizigarrietarako denbora askatzea eragozten du. Bestalde, autonomia politiko pixka bat gehiago aurkitzen dute askotan herri txikietan udalarekin harremana zuzenagoa den heinean. Ordea, autonomia kulturala askoz ere handiagoa da landa eremuetan, eta, batez ere, aukera gehiago zabaltzen dira narratiba propioak sortzeko. Hala, landatar berriek egitura sinbolikoan aldaketa sakonak egiten dituzte, eta izateko eta egoteko modu alternatiboak Lurrari lotuak eta ekologikoak sortzen dituzte.

¹ Aipua jatorrizko hizkuntzan uztea erabaki da elkarriketatuen perfilari buruz informazioa emateko helburuarekin, izan ere, gaztelerazko kasuetan euskal herritik kanpoko pertsonak dira.

Dena den, ez dute egitura sozioekonomikoaren arauak aldatzea lortzen, ezta arau politikoak ere, nahiz eta orokorrean, landatar berriek autonomia gehiago topatzen duten landa eremuan hirian baino. Kasu honetan, gainera, esperientzia komunal, autonomo edota anarkistatik urruti kokatzen dira, uste baitute politika publikoen bidez landa eremu bizigarriagoak sortu daitezkeela (lurraren eta etxebizitzaren sarbidea bermatuz, lehenengo sektorea duinduz, etab.). Gainera, esan beharra dago, Euskal Herrian ez dagoela mugimendu neorrural sareturik edo antolaturik, Espainiako ekoaldean mugimendua, edota Frantziako ZADak bezala.

Hori dela eta, Arratiako landatar berriek badakite haiek ez direla adibiderik alternatibo edo erradikalena, batez ere, utopia autonomo eta komunalekin alderatuta. Erdibideko alternatiba hauek errealak direla esan dezakegu.

“A una persona que tiene una vida convencional en este momento, está tan lejos de su realidad que es difícil que estos (Tinkers Buble, Lakabe, Comunidades Intencionales) inspiren, o no sé igual me equivoco... pero una vía más intermedia por lo menos en comodidades que nosotros sí tenemos mucha comodidad aquí, a lo mejor puede inspirar a alguien un poco más fácil... no sé, no sé.” (Camille, 43, Zeanuri)

Wrigthek *utopia erreala* (Wright, 2014) kontzeptua sortu zuen, desiragarriak ez ezik, egingarriak eta lorgarriak ere diren gizarte-ereduak izendatzeko. Utopia errealak utopia tradizionaletatik bereizten dira azken horiek ideal perfektuak direlako, eta ez da espero horiek lortzea. Aldiz, utopia errealak bideragarriak dira eta ez dute orainarekiko erabateko haustura bilatzen, baizik eta mailakako eraldaketa pragmatikoak. Esan daiteke hobeto bizitzeko estrategia hauen potentziala dela gaur egungo egiturazko baldintzetan orokortu daitezkeen bizimoduak direla.

4. Ondorioak

Euskal gizartearen iruditegian landa eremuko bizimoduari lotzen zaio maiz lasaitasuna, autonomia, sinpletasuna, bizitza komunitarioa, eta baita euskalduntasuna ere. Baina, azken horri dagokionez, ikusi dugu landatar berriek euskalduntasunaren irudia eraldatzen dutela kultura animista berreskuratuz. Hau da, jatorrizko euskal kulturaren, -Lurrari eta naturari lotutako mundu ikuskeran oinarritua-, bilatzen dituzte zentzu berriak.

Horrez gain, landatar berrien artean landa eremua lurraldearekiko harreman estuago batekin ere lotzen dela ikusi dugu, besteak beste, praktika agroekologikoetan islatzen dena, eta bizitzaren birproduktzioarekin eta zaintzarekin zerikusia duena. Horrekin loturik, Lurrari lotzeko, esfortzua eta lan gogorra balio gisa agertzen dira, ez modu negatiboan, edo horien gaitzespenerako, aurreko belaunaldiak egiten zuten bezala; baizik eta, esfortzuaren kultura onartuz. Hori baita landatar berrientzat autonomiarako bidea.

Landatar berriek haien bizimodu alternatiboetan, gainera, badute beste balio bat berritzailea dena eta hori borondatezko pribilegio uztea da. Alegia, haien pautak kulturaletan normalizatuta dago irabazi ekonomikoak murriztea, lanbide berria lurraldeari loturikoa eta, zentzuduna bada. Klase ertainetik, langile klasera igarotzen dira asko horrela. Euskal Herriko kontestuan, eta bereziki Bizkaian, landatar berrien profila irudikatzerakoan klase ertaina edo burgesa etortzen zaigu burura, baina, errotze utopien kasuan protagonistak langile klasekoak direla ikusten dugu.

Halaber, ondoriozta dezakegu landatar berrientzat eta haien eraginez, landa eremua ez dela bizitza sozial eta politikorik gabeko lekua. Are gehiago, landa eremuan bizitza sozial, kultural eta politiko handia dago, eta landatar berriek zentzu horretan autonomia handiagoa aurkitzen dute hirian baino.

Eta azkenik, desioak murrizteak arintasuna ematen die eta bizi zikloak hurbiletik bizitzaren ondorioz, sasoikoa kontsumitzearen garrantzia handitzen da, adibidez. Beraz, urteak pasa ahala landa espazioak dispoizioak (beharrak, gustuak, desioak...) aldatzen dizkie landatar berriei, gutxiago behar dute eta bizi erritmo lasaiagoak dituzte.

Jasangarritasunaren kulturaren parte diren praktika horien bidez, munduan egoteko modu eta subjektibitate berriak sortzen dituzte. Hortaz, esan dezakegu Arratiako landatar berriek, bizimodu alternatiboen bidez, besteak beste, nahikotasunean eta sinpletasunean oinarritutako bizimoduen bidez, Lurraren Kultura Berria birproduzitzen dutela, krisi ekosozialen testuingurura hobeto egokitzekeko estrategiak garatuz.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Arratiako landa eremuen gaur egungo egoeraren diagnostiko osatuago bat izateko, tokian tokiko eragile askoren ahotsak falta zaizkigu. Esaterako, neorruralen seme-alabena, bizilagun ohiena, edota teknikari eta zinegotziena. Interesgarria litzateke, adibidez, jakitea seme-alaben errotze maila zein den. Pentsa genezake haien etxea landa eremua izanik bertako lurraldearekiko lotura estuagoa izango dela. Bestalde, bertako bizilagunen iritzia jasoko bagenu, landatar berrien aurrean sortzen diren erresistentzien zergatia ulertuko genuke. Hala, bertakoen eta “kanpokoen” arteko elkarpuntuak eta gatazkak zeintzuk diren aztertu ahalko genuke. Ikusi da, gainera, bizilagunekin dituzten gatazkak eta harremanak erabakigarriak izan daitezkeela errotze prozesuak arrakastatsuak izateko.

Bestalde, euskal identitatea eta identitate ekologikoa nola uztartzen diren ikertzea ere interesgarria litzateke. Azkenaldian, euskal musikan (Neomak, Zetak, Rotten...) edo ikusentzunezkoetan (Irati, Errementari...) asko egiten zaio erreferentzia mitologiari eta kultura animistari. Jatorrizko tradizioen berpizte bat ere egon da (Gau Beltza, Iñauteriak...). Eta landatar berrien artean ere, euskalduntasuna lurraldeari loturiko kultura animista betekin lotzen hasia da. Antzematen da euskal gizartean badagoela Lurrarekiko lotura berreskuratzeko gogoia, espresio bide ezberdinetan islatzen dena.

Baina, krisi ekosozialen testuinguruan, landa eremua espazio garrantzitsua izango da, eta aldaketa asko biziko dituela dirudi. Honezkero, ekokapitalismoarentzat baliabide interesgarria izaten ari da, esaterako, energia berriztagarrien produkzioarako edo agronindustrialarako. Landatar berrien ikuskeratik proiektu horiek eredu produktibista eta estruktibista hutsak dira, eta ez dute inola ere Lurrari loturiko bizimodu bat bultzatzen. Landa eremuan eredu ekonomiko eta kulturalen arteko gatazkak agertzen ari dira dagoeneko, eta pentsa genezake lurraldeari errotutako landatar berriek borroka horietan aurkitu ditzakegula. Horregatik, etorkizun hurbilean planteatzen da landa eremuaren defentsarako estrategia horietan landatar berriek produzitzen dituzten narratibak aztertzea.

Eta azkenik, Arratiako landatar berrien esperientziak Euskal Herriko zein nazioarteko landa eremuekin konparatzea ere falta da oraindik, izan ere, ikergaia nazioarte mailan kokatzeko potentziala kontuan hartuko da.

6. Erreferentziak

- Azkarraga, J. (2021). *Mindfulness Implicado: explorando la intersección entre práctica meditativa, subjetividad contemporánea y cambio ecosocial*. Doktore tesia, Psikologiako sailean, Ramon Llull Unibertsitatean. DOI <http://hdl.handle.net/10803/672114>
- Benson, M., eta O'Reilly, K. (2009). Migration and the search for a better way of life: a critical exploration of lifestyle migration. *The sociological review*, 57(4), 608-625. DOI: [10.1111/j.1467-954X.2009.01864.x](https://doi.org/10.1111/j.1467-954X.2009.01864.x)
- Blas, A. eta Elías, X. (1991) De la ciudad al campo: el fenómeno social neorruralista en España. *Política Y Sociedad*, 9, 73.
- Calvário, R. (2017). Food sovereignty and new peasantries: on re-peasantization and counter-hegemonic contestations in the Basque territory. *Critical Agrarian Studies Colloquium 7 "The future of food and challenges for agriculture in the 21st century"*, Basque Country. DOI: [10.1080/03066150.2016.1259219](https://doi.org/10.1080/03066150.2016.1259219)

- Escribano, L. (2020). “*La vuelta al campo*” en *Cataluña: una perspectiva antropológica*. Doktoretza tesia UAB. <http://hdl.handle.net/10803/670486>
- Eusko Jaurlaritza. (2020) Emakumeak Euskal Landa Ingurunean. Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren txostena.
- Geertz, C. (1991). *La interpretación de las culturas*. Edit. Gedisa Mexicana SA: México DF.
- Halfacree, K. (2007) Trial by space for a “radical rural”: Introducing alternative localities, representations and lives. *Journal of Rural Studies* 23, 125-141. DOI: [10.1016/j.jrurstud.2006.10.002](https://doi.org/10.1016/j.jrurstud.2006.10.002)
- Herrero, Y.; Pascual eta Reyes (2018) *La vida en el centro. Voces y relatos ecofeministas*. Ecologistas en Acción.
- Hervieu B.; Leger, D. (1979) *Le retour à la nature. « Au fond de la forêt... l'État »* Le Seuil.
- Hüttel, A., Balderjahn, I., eta Hoffmann, S. (2020). Welfare beyond consumption: The benefits of having less. *Ecological economics*, 176, 106719. DOI: [10.1016/j.ecolecon.2020.106719](https://doi.org/10.1016/j.ecolecon.2020.106719)
- Martinez, J. (2002) La identidad reconstruida: espacios y sociabilidades emergentes en la ruralidad alavesa. *Coleccion Lur*, 6, Gobierno Vasco.
- Nogué, J. (2016) El reencuentro con el lugar: nuevas ruralidades, nuevos paisajes y cambio de paradigma *Documents d'Anàlisi Geogràfica*, 62/3 489-502. DOI: [10.5565/rev/dag.373](https://doi.org/10.5565/rev/dag.373)
- (1988) El fenómeno neorrural. *Agricultura y sociedad*, 47(1), 145-175.
- Nogué, J. eta Font (2012) Lugar, paisaje e identidad. *Paisea: revista de paisajismo*, (20), 6-12.
- Riechmann, J. (2020) Necesitamos una cultura gaiana *Litoral: revista de la poesía y el pensamiento*, 270, 145-151.
- (2015) *Autoconstrucción. La transformación cultural que necesitamos*. Madrid: Catarara.
- Rivera, M. J. (2023). Migración prorrural a áreas remotas en tiempo de crisis. *Recerca. Revista de Pensament i Anàlisi*, 28(1). DOI: [10.6035/recerca.6507](https://doi.org/10.6035/recerca.6507)
- (2009). La neorruralidad y sus significados. El caso de Navarra. *Revista Internacional de Sociología*, 67 (2), 413-433. DOI: [10.3989/RIS.2008.05.11](https://doi.org/10.3989/RIS.2008.05.11)
- (2007) *La ciudad no era mi lugar. Nuevos significados residenciales de la vuelta al campo en Navarra*, Pamplona, Universidad Pública de Navarra.
- Mercier, C. eta Simona, G. (1983). Le néo-ruralisme. Nouvelles aproches pour un phénomène nouveau. *Revue de Géographie Alpine*, lxxi-3, 253-265.
- Morán, C.(2023) *Nueva Cultura de la Tierra*. Ecologistas en Acción, Madrid.
- Norberg-Schulz, C. (1979). *Los principios de la arquitectura moderna*. Reverté.
- Sommer, B. eta Welzer, H. (2014) *Transformation design: a social- ecological perspective*.
- Orria, B., eta Luise, V. (2017). Innovation in rural development: “neo-rural” farmers branding local quality of food and territory. *Italian Journal of Planning Practice*, 7(1), 125-153.
- Wright, E. O. (2014). *Construyendo utopías reales*. Ediciones Akal.

7. Eskerrak eta oharrak

Testu hau doktoretza tesi baten emaitza da, eta eskerrak eman nahi dizkiet Oihane Garcia eta Iñaki Barcenari, urte hauetan tesia zuzentzen egindako lanagatik, eta prozesu osoan zehar bidelagun izateagatik. Baita ere Ekopol ikerketa taldeari nire lana diruz finantziatzeagatik. Eta nola ez, elkarriketatu guztiei, eskerrik beroenak.